

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

13/2021 Foru Araua, apirilaren 21ekoa, tresna teknologikoak erabili beharra ezartzen duena

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko apirilaren 21ean egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

13/2021 Foru Araua, apirilaren 21ekoa, tresna teknologikoak erabili beharra ezartzen duena

ZIOEN AZALPENA

Arabako zerga sistema bat dator herrialde garatu askoren sistemekin, eta horregatik informazio betebeharrak asko ezartzen ditu, kasu batzuetan autonomoak eta beste batzuetan zerga batzuen kontura atxikipenak egin edo dirua sartu beharrezkin lotuta, zergapekoek egiten dituzten eragiketa ekonomikoetatik zerga ondorioak sortzen dituztenei dagokienez. Betebeharrak horiek ezarri ahala Aldundiko zerga administrazioak beharrezko kontrol tresnak eratu ditu jasotzen duen informazioa ahalik ondoen erabiltzeko eta horren bidez ahalik emaitzarik hoberenak lortzeko. Gainera, tresna horien bidez zergapekoak ere kontrolatu ahal ditu, beren forma juridikoa eta jasotzen dituzten etekinen mota gorabehera, zergak ordaindu beharra ondo betetzen dutenez egiaztatzeko.

Hala ere, Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) 2013. urteko "Salmenten ezabaketa elektronikoa: zerga sarreretarako mehatxua" txostenean azaldu zuen bezala, zergen arloko agintaritza asko zerga iruzurra egiteko modu bereziak ari dira detektatzen, honako hauek esate baterako: batetik, salmentak elektronikoki ezabatzea diru sarrera gutxiago aitortzeko; bestetik, gastu gehiago aitortzea faktura faltsuen bidez. Horregatik, ELGAK zerga administrazioei gomendatzen die ezar ditzatela baliabide teknologiko egokiak zergen ordainketari itzuri egiteko modu horiek detektatzeko eta zerga iruzurra eragozteko.

Gomendio horiek aintzat hartuta, azken urteotan batez ere azken kontsumitzaileekin aritzen diren enpresen eta profesionalen saltokietako terminalak kontrolatzeko tresnak dauzkaten zerga sistemak ezarri dira gure inguruko herrialde askotan, esaterako Austrian (oraintsu), eta aurretik Suedian, Poloniar, Portugalen eta Quebec-en (Kanada).

2016. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan, Zerga Iruzurraren aurka Borrokatzeko EAeko Batzordeak (hiru aldundietako foru ogasunak, Eusko Jaurlaritzak koordinatuta) Iruzurraren Aurka Borrokatzeko Planean adierazi zuen azken urteetan jarduera sektore batzuetan geroz eta gehiago erabiltzen direla salmentak ezkatatzeko tresna informatikoak eta geroz eta gehiago manipulatu direla kontabilitateko egoera orriak, eta, beraz, zerga aitortpenak egiteko oinarriak faltsutzen ari direla. Horren kontra egin nahian, Batzordeko kideek konpromisoa hartu zuten denek batera estrategia bat antolatuzeko jarduera sektore jakin batzuetan fakturazioa kontrolatzeko tresnak ezartzeko.

Estrategia horrekin bat etorritik, balio erantsiaren gaineko zerga kudeatzeko sistema berria ezarri zen zergadun jakin batzuentzat, batez ere eragiketa bolumen handiko pertsona juridikoentzat. Sistemaren oinarria informazioa berehala hornitzea (IBH) da.

Foru arau honen onespenerekin aurrerapen handia egingo da Araban jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoen eta pertsona juridikoen (tamaina edo eragiketen bolumena gorabehera) tributazioa kontrolatzeko estrategia horretan. Hain zuzen ere, arau honen

arabera zergadunek nahitaez erabili behar dituzte puntako tresna teknologiko berriak fakturazio sistemetan: TicketBAI sistema.

Horrenbestez, arau honek zenbait betebeharrak ezartzen ditu sistema informatiko berriaren ezarpenaren ondorioz, bermatu behar baitira Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko administrazioek Eusko Jaurlaritzarekin batera abian jarritako TicketBAI sistemaren bidez dokumentatzen diren ondasun emateen eta zerbitzugintzen fitxategien osotasuna, artapena, trazabilitatea, bortxaiezintasuna eta bidalketa.

Aurrekoaren ildotik, TicketBAI sistemaren betebeharrak berria modu berean ezartzen da sozietateen gaineko zergaren eta pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren gaineko zergaren foru arauetan, eta horrez gainera ez-egoiliarren errentaren gaineko errenta ordaintzen duten establezimendu iraunkorretan ere bete beharko da.

Hori dela eta, pertsona fisikoaren artean jarduera ekonomikoaren bat egiten dutenek bakarrik bete behar badute, pertsona juridikoaren artean ondasun emateren bat egin edo zerbitzuren bat egiten duten guztiek bete beharko dute, eragiketa ustiapen ekonomiko batean egin zein bestelakoa izan.

Foru arau honen bidez aurrean aipatutako zergei buruzko foru arauetan txertatzen dira ondasun emateak eta zerbitzugintzak erregistratzeko, fakturak eta eragiketak frogatzen dituzten beste dokumentu batzuk egiteko, eta eragiketa horiei buruzko informazioa Arabako Foru Aldundiari bidaltzeko sistema informatikoak bete beharreko baldintzak. Nolanahi ere, sistemaren zehaztapena foru araua garatuko duen arautegian egingo da.

Jarduera ekonomikoaren bat egiten duten pertsona fisikoek zein pertsona juridikoek Arabako Foru Aldundira bidali beharko dute sistema informatiko honen bidez sortzen den informazioa.

Gainera, arau honetan ezartzen da erregistro bat egingo dela informazio betebeharrak betetzeko behar diren softwareak eta horiek garatzen dituzten pertsonak eta entitateak inskribatzeko. Erregistro horren bidez zergadunek software hornikuntzan ari diren pertsona eta entitate fidagarrien zerrenda edukiko dute eskura; izan ere, erregistroan egon nahi dutenek konpromisoa hartu beharko dute, erantzukizunpeko adierazpen bat sinatuta, TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituen produktua hornitzeko.

Nahitaezko sistema berria, gainera, orokorra izango da, hau da, zergadunak (pertsona fisikoak zein juridikoak) kasu berezi jakin batzuetan baino ez dira egongo ezarritako betebeharrak berrietatik salbu. Kasu batzuetan salbuespena betebeharrak guztiak bete beharretik aske gelditzea izango da eta beste batzuetan, aldiz, betebeharrak batzuk bete beharretik aske gelditzea. Dena dela, salbuespenak arautegian zehaztuko dira.

TicketBAI sistemaren oinarrietako bat da bezeroek edo eragiketen hartzaileek (pertsonak zein entitateek) jasotzen dituzten fakturak edo tiketak egiaztatu ahal izango dituztela QR kodeak irakurtzeko gailu batez; horrela, benetakoak direnez eta Arabako Foru Aldundira bidali direnez jakin ahal izango dute, hau da, zerga betebeharrak bete diren ala ez.

Betebeharrak hau 2022. urtean ipiniko da indarrean, baina, hala ere, gutxika-gutxika aplikatzen hasiko da, bien bitartean Arabako Foru Aldundiak sostengua eta laguntza tekniko eman diezazkien zergadunei egoera berrira erraz eta eroso moldatu ahal izateko.

Badakigu nolako eragin ekonomikoa edukiko duen gaur egun pertsona fisikoek eta juridikoek beren ondasun emateak eta zerbitzuak fakturatzeko erabiltzen dituzten terminalak sistema informatikoak TicketBAI sistema berrira egokitu beharrak. Horregatik, zerga pizgarriak ezartzen dira aldi baterako sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren (establezimendu iraunkorrek) eta pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren tributazioan: ehuneko 30eko kenkaria kuotan, oinarritzat hartuta sistema berrira egokitu beharrak eragiten dituen gastuen eta inbertsioen zenbatekoa, muga batzuekin. Kenkari honi esker zergadunek ezarri zaizkien betebeharrak berriak direla eta aurre egin beharreko kostuak murriztuko dira.

Sistema ixteko tresna gisa, ELGAk lehen aipatutako 2013. urteko txostenean eta 2017. urteko "Zerga itzurpenari eta zerga iruzurrari heltzeko tresna teknologikoak" izenekoan eta 2019. urteko "Implementing online cash register: benefits, considerations and guidance" izenekoan eman dituen gomendioak aintzat hartuta, zehapen adierazgarriak ezartzeko araubidea ezartzen da sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren (establezimendu iraunkorrak) eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren tributaziorako ezarritako betebeharrak betetzen ez diren kasuetarako.

1. artikulua. Sozietateen gaineko zergaren aldaketa

Lehenengoa. Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan aldaketa hauek sartzen dira, 2022ko urtarrilaren 1az geroko ondorioekin:

Bat. VIII. tituluko II. kapituluaren izenburua honako hau izango da: "Betebehar formalak eta kontabilitatekoak. Kontabilizatu gabeko ondasunak eta eskubideak. Borondatezko birbalorizazioak."

Bi. 122 bis artikulua gehitzen da; hona:

«122 bis artikulua. Ondasun emateak eta zerbitzugintzak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, artapena, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen dituen sistema informatikoa erabili beharra.

1. Zerga honen zergadunek egiten dituzten ondasun emateak eta zerbitzugintzak dokumentatzen dituzten fitxategi informatikoen osotasuna, artapena, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen dituen sistema informatikoa erabili beharko dute (betekizunak, mugak eta baldintzak arautegi batean ezarriko dira). Hain zuzen ere, sistema horretan honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Ondasun emate eta zerbitzugintza bakoitzeko fitxategi informatiko bat sortu beharko da faktura edo frogagiria egin aurretik, eta sinadura elektronikoa erantsi beharko zaio. Fitxategiaren edukia eta ezaugarriak arautegian zehaztuko dira.

Fitxategi informatiko horretan honako informazio hau agertu beharko da:

a') Aurreko eragiketa dokumentatzen duen fakturaren edo frogagiriaren identifikazioa.

b') Egindako eragiketaren fakturaren edo frogagiriaren datuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak (pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta indarrik gabe uzten duena 95/46/EE Zuzentaraua) 9. artikuluan ezartzen duenaren arabera babestuta daudenak izan ezik.

c') Erabilitako sistema informatikoaren edo softwarearen identifikazioa (sistemak edo softwareak hurrengo 2. idatz zatian ezartzen dena bete behar du), eta hura garatu duen pertsonaren edo entitatearen identifikazioa.

b) Aurreko a) letran xedatzen denarekin bat etorritik sortzen den fitxategi informatiko bakoitza berehala bidali beharko da zerga administraziora, edo arautegian ezartzen den epealdiaren barruan.

c) Fakturaren edo frogagiriaren identifikazio kodea. Fakturak edo frogagiriak "QR" kodea eduki beharko du.

Foru arau honetako 12. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen diren entitate salbuetsiek ez dute edukiko betebehar hau, eta irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubidearen foru arauak ezartzen duen irabazteko asmorik gabeko entitateen araubidea aplikatzen zaienek ere ez.

Gainera, foru arau honetako 12. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen den salbuespen partziala duten entitateek zerga oinarrian sartu behar diren errentak ematen dituzten eragiketetan baino ez dute bete behar hemen eskatzen dena.

Betebehar honen salbuespenak ezarri ahal izango dira arautegian.

2. Aurreko idatz zatian ezartzen dena betetzeko honako hauetako bat erabili beharko dute zergadunek:

a) Arabako Foru Aldundiak zergadunen eskura ipinitako aplikazio informatikoa (baldintzak eta mugak arautegian ezarriko dira).

b) Berariaz eratutako erregistroan inskribatutako softwarea, erregistro horretan berean inskribatuta dagoen pertsona edo entitate batek garatua (garatzaileak erantzukizunpeko adierazpena sinatuta eduki behar du).

Letra honetan aipatzen den erregistroko inskripzioak eta horien aldaketak eta bajak arautegian ezartzen denarekin bat etorri egingo dira.

Baldin eta letra honetan aipatzen den softwarea zergadunak berak garatu badu, berak sinatu beharko du erantzukizunpeko adierazpena eta berak inskribatu beharko du softwarea erregistroan.

3. Arautegian arau bereziak ezarri ahal izango dira aurreko 1. idatz zatian arautzen den betebeharrari dagokionez kasu honetarako: faktura eragiketaren jasotzailea den pertsona edo entitate batek edo hirugarren batek egiten duenean.

4. Zerga administrazioak faktura edo frogagirien jasotzaileak diren pertsona eta entitateei aukera emango die fakturak edo frogagiriak jasotzen dituzten zergapekoek egiaztatzeko 1. idatz zatian arautzen diren betebeharrak betetzen direnez.

Egiaztapena egiteko modua arautegian zehaztuko da.»

Hiru. 133. artikulua honela gelditzen da:

«133. artikulua. Arau haustek eta zehapenak.

Hurrengo artikuluan eta foru arau honetako gainerako manuetan xedatzen dena gorabehera, zerga honen arloko arau hausteei zehapena ezarriko zaie otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, xedatzen duenarekin bat etorri.»

Lau. IX. tituluan 133 bis artikulua gehitzen da; hona testua:

«133 bis artikulua. Ondasun emateak eta zerbitzugintzak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, artapena, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen dituen sistema informatikoa erabili beharra: arau haustek eta zehapenak.

1. Zergen arloko arau haustek dira:

a) Ondasun emateak eta zerbitzugintzak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, artapena, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen dituen sistema informatikoa erabili beharra ez betetzea foru arau honetako 122 bis artikuluan eta hori garatzen duten xedapenetan ezartzen denarekin bat etorri.

b) Foru arau honetako 122 bis artikuluan aipatzen diren sistema informatikoa, softwarea, artxibo edo fitxategi informatikoak ezabatzea, eskuz edo prozesu informatiko baten bidez.

2. Aurreko 1. idatz zatiko a) letran aipatzen den arau hausteagatik honako zehapen hauek ezarriko dira:

a) Orokorrean, diruzko isuna: aurreko ekitaldiko negozio kopuruaren ehuneko 20 (20.000 euro gutxienez).

Aurreko ekitaldia egutegiko urtea baino laburragoa izan bada, negozio kopurua urtekoratu egingo da.

Jarduera ekonomikoa hasi berria bada, lehenengo ekitaldian egindako negozio kopurua hartuko da aintzat; lehen ekitaldia urtea baino laburragoa izan bada, ekitaldiko negozio kopurua urtekoratu egingo da.

Baldin eta aurreko 1. idatz zatiko a) letran aipatzen den arau haustea egin aurreko lau urteetan arau hausleari ebazpen irmoaren bidez, letra honetan xedatzen denarekin bat etorritik, zehapena ezarri bazaio administrazio bidean beste arau hauste batengatik, diruzko isun proportzionala ezarriko zaio, aurreko ekitaldiko negozio kopuruaren ehuneko 30ekoa, hain zuzen (gutxienez 30.000 euro).

b) Aurreko a) letran xedatzen dena gorabehera, sistema erabili beharra ondasun emate edo zerbitzugintza batekin edo batzuekin betetzen ez bada, isuna diruzko isun finkoa izango da: 2.000 euro sistema erabili ez den eragiketa bakoitzeko.

Aurreko paragrafoan xedatzen denaren ondoriozko zehapena inolaz ere ezin da izan aurreko a) letran xedatzen denaren aplikazioaren emaitzako kopurua baino gehiago.

Baldin eta aurreko 1. idatz zatiko a) letran aipatzen den arau haustea egin aurreko lau urteetan arau hausleari ebazpen irmoaren bidez, b) letra honetan xedatzen denarekin bat etorritik, zehapena ezarri bazaio administrazio bidean beste arau hauste batengatik, zehapena aurreko a) letrako lehen paragrafoan xedatzen denarekin bat etorritik ezarriko da.

3. Aurreko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen den arau hausteagatik honako zehapen hauek ezarriko dira:

a) Diruzko isuna: aurreko ekitaldiko negozio kopuruaren ehuneko 20 (40.000 euro gutxienez).

Zehapen hau eta aurreko 2. idatz zatiko a) letran arautzen den zehapena bateragarriak izango dira.

Aurreko ekitaldia egutegiko urtea baino laburragoa izan bada, negozio kopurua urtekoratu egingo da.

Jarduera ekonomikoa hasi berria bada, lehenengo ekitaldian egindako negozio kopurua hartuko da aintzat; lehen ekitaldia urtea baino laburragoa izan bada, ekitaldiko negozio kopurua urtekoratu egingo da.

Baldin eta aurreko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen den arau haustea egin aurreko lau urteetan arau hausleari ebazpen irmoaren bidez, a) letra honetan xedatzen denarekin bat etorritik, zehapena ezarri bazaio administrazio bidean beste arau hauste batengatik, diruzko isun proportzionala ezarriko zaio, aurreko ekitaldiko negozio kopuruaren ehuneko 30ekoa, hain zuzen (gutxienez 60.000 euro).

b) Baldin eta zerga administrazioak egiaztatzen badu aurreko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen den ezabaketan edo manipulazioan esku hartu duela softwarea garatu duen pertsonak edo entitateak edo zergaduna ez beste pertsona batek, pertsona edo entitate hori ere arau hausletzat joko da eta diruzko isun finkoa ezarriko zaio: 40.000 euro.

Baldin eta aurreko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen den arau haustea egin aurreko lau urteetan arau hausleari ebazpen irmoaren bidez, b) letra honetan xedatzen denarekin bat etorritik, zehapena ezarri bazaio administrazio bidean beste arau hauste batengatik, diruzko isun proportzionala ezarriko zaio: 60.000 euro.

c) Baldin eta zergadunak berak garatu badu softwarea eta, gainera, aurreko 1. idatz zatiko b) letrako arau haustea egiten badu, idatz zati honetako a) letran xedatzen denarekin bat etorritik ezarriko zaio zehapena.

Idatz zati honetan ezartzen denaren ondorioetarako, pertsona edo entitate batek aurreko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen den ezabaketan edo manipulazioan esku hartu duela ulertuko da honako kasu hauetan:

- Sistema informatikoa edo softwarea, artxibo edo fitxategi informatikoak aldatu baditu.
- Sistema informatikoa edo softwarea kontrolatu edo kontrolatzen badu, edo fitxategi edo erregistro informatikoak.
- Ezabaketarako edo manipulaziorako sistema, baliabide edo metodoren bat jarri badu beste pertsona edo entitate baten eskura.
- Ezabaketarako edo manipulaziorako jarraibideak eman edo irakatsi baditu.
- Ezabaketa edo manipulaziotzat jotzeko bezain garrantzitsua ez izan arren, ezabaketa edo manipulazio prozesuko elementua den ekintza bat egiten badu edo beharrezko zerbait egiten ez badu, baldin eta horren ondorioz, beste pertsona edo entitate baten edo batzuen ekintzeekin edo ez-egiteekin batera, ezabaketa edo manipulazioa gertatzen bada.

4. Artikulu honetan arautzen diren arau haustek eta zehapenak bateragarriak dira otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 206. artikuluan arautzen dituenekin.

Hala ere, aurreko 2. idatz zatian arautzen diren zehapenetako bat ezarriz gero, ezin izango da ezarri otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 206.2.b) artikuluko bigarren paragrafoan arautzen duen zehapena.

5. Aurreko 2. eta 3. idatz zatietan xedatzen denarekin bat etorritik ezartzen diren zehapenei otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 192. artikuluan arautzen duen murrizketa aplikatu ahal zaie, bidez.»

Bigarrena. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, beste xedapen gehigarri bat eransten zaio, hogeita seigarrena, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauari; hona testua:

«Hogeita seigarren xedapen gehigarria. Ondasun emateak eta zerbitzugintzak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, artapena, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen dituen sistema erabiltzea sustatzeko kenkaria.

1. Foru arau honetako 122 bis artikuluan aipatzen diren baldintzak betetzen dituen sistema informatikoa erabili behar duten zergadunek kenkaria aplikatu ahal izango dute kuota osoan, hain zuzen ere 2020., 2021., 2022. eta 2023. urteetan sistema ezartzeaz ondoren zehazten diren xedeetarako egindako inbertsioen eta gastuen ehuneko 30:

a) Foru arau honetako 122 bis artikuluan ezartzen dena betetzeko behar diren ekipoak eta terminalak erosi, behar den softwarearekin eta behar diren periferikoekin (instalazioak eta ezarpenak eragiten dituzten gastuak barne).

b) Foru arau honetako 122 bis artikuluko 2. apartatuko b) letran aipatzen diren betebeharrak, ondasun emateak eta zerbitzugintzak dokumentatzen dituzten fitxategiei buruzkoak, betetzeko behar den softwarea erosi, harpidetu, jaso, eguneratu edo berritu (instalazioak eta ezarpenak eragiten dituzten gastuak barne).

c) Ondasun emateak eta zerbitzugintzak dokumentatzen dituzten fitxategiei buruzko betebeharrak betetzeko erabili beharreko sinadura elektronikoaren softwarea erosi, harpidetu, jaso, eguneratu edo berritu (instalazioak eta ezarpenak eragiten dituzten gastuak barne).

2. Kenkariaren oinarria aurreko 1. idatz zatian aipatzen diren inbertsioen eta gastuen guztirako zenbatekoa izango da, eta foru honetako 67. artikuluko 3. idatz zatian xedatzen denarekin bat etorritik kalkulatu da.

Horrela kalkulaturako kenkari oinarria ezin da izan hau baino gehiago:

a) 5.000 euro.

b) 2019. urtean amaitutako azken zergaldiko negozioen zenbateko garbiaren ehuneko 1. Jarduera 2019. urtearen ondoren hasi bada, jarduera hasi den zergaldia hartuko da erreferentziazat.

Hori dela eta, zergaldia egutegiko urtea baino laburragoa bada edo zergaldian hasi bada jarduera ekonomikoa, negozioen zenbateko garbia urtekoratu egingo da.

b) letra honetako lehenengo paragrafoan ezartzen dena gorabehera, kalkulaturako kopurua 500 eurotik beherakoa bada, kenkari oinarria ondoko bi kopuru hauetatik txikiena izango da:

a') 2. idatz zati honetako lehen paragrafoan ezartzen den kenkari oinarria.

b') 500 euro.

3. Kenkari eskubidea ematen duten inbertsioak edo gastuak zergaldi batean baino gehiagotan egin badira, aurreko 2. idatz zatian ezartzen den gehieneko muga batera aplikatuko zaie guztiei.

4. Foru arau honetako 122 bis artikuluan ezartzen den gorabehera eskatzen hasi ondoren egiten diren inbertsioek eta gastuek ez dute kenkarirako eskubiderik emango.

5. Kuota nahikoa ez izateagatik kenkaririk sortzen ez duten kopuruak hurrengo ondoz ondoko hogeita hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan aplikatu ahal izango dira.

6. Gastu edo inbertsio batek ezin sortu izango du kenkaria aplikatzeko eskubidea entitate batean baino gehiagotan, ez eta entitate batean zerga honetarako araututako kenkarietako bat baino gehiago aplikatzeko eskubiderik ere. Halaber, kenkari hau ezin aplikatu izango da honako kasu honetan ere: gastua edo inbertsioa foru arau honetako 53. artikuluan azaltzen den moduan ekintzaitza sustatzeko eta ekoizpen jarduera indartzeko erreserba berezia gauzatzeko erabili bada.

Kenkari hori bateraezina izango da inbertsio edo gastu berekin loturiko beste edozein zerga onurarekin, amortizatze askatasunari, amortizazio bizkortuari eta baterako amortizazioari dagokienez izan ezik.

7. Foru arau honetako 14. artikuluan aipatzen diren ondare sozietateek xedapen honetan arautzen den kenkaria aplikatu ahal izango dute.

8. Kenkari hau aplikatzea aukerakoa da; aukera baliatzeko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorak, Arabako zergei buruzkoak, 115. artikuluko 3. idatz zatian xedatzen duena eta foru arau honetako 128. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.»

2. artikulua. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren aldaketa

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauan aldaketa batzuk egiten dira; hona:

Bat. Xedapen gehigarri bat eransten da, hamaikagarrena, eta 2022ko urtarrilaren 13az gero sortuko ditu ondorioak; hona testua:

«Hamaikagarren xedapen gehigarria. Zehapen araubidea.

Establezimendu iraunkor baten bidez errentak lortzen dituzten zergadunei abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 133. eta 133 bis artikuluetan xedatzen duena aplikatuko zaie.»

Bi. Xedapen gehigarri bat eransten da, hamabigarrena, eta 2020ko urtarrilaren 13az gero sortuko ditu ondorioak; hona testua:

«Hamabigarren xedapen gehigarria. Sistema informatikoa erabiltzea sustatzeko kenkaria.

Foru arau honetako 19. artikuluko 4. idatz zatiko a) letran aipatzen diren kenkariez gainera, establezimendu iraunkor baten bidez errentak lortzen dituzten zergadunek abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, hogeita seigarren xedapen gehigarrian arautzen duen kenkaria ere aplikatu ahal izango dute.»

3. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aldaketa

Lehenengoa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan honako aldaketa hauek egiten dira (2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 113 bis artikulua gehitzen da; hona:

«113 bis artikulua. Ondasun emateak eta zerbitzugintzak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, artapena, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen dituen sistema informatikoa erabili beharra.

1. Foru arau honetako 24. artikuluan xedatzen denaren arabera jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoek egiten dituzten ondasun emateak eta zerbitzugintzak dokumentatzen dituzten fitxategi informatikoen osotasuna, artapena, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen dituen sistema informatikoa erabili beharko dute (betekizunak, mugak eta baldintzak araudi batean ezarriko dira). Hain zuzen ere, sistema horretan honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Ondasun emate eta zerbitzugintza bakoitzeko fitxategi informatiko bat sortu beharko da faktura edo egiaztagiria egin aurretik, eta sinadura elektronikoa erantsi beharko zaio. Fitxategiaren edukia eta ezaugarriak araudian zehaztuko dira.

Fitxategi informatiko horretan honako informazio hau agertu beharko da:

a') Aurreko eragiketa dokumentatzen duen fakturaren edo frogagiriaren identifikazioa.

b') Egindako eragiketaren fakturaren edo frogagiriaren datuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak (pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta indarrak gabe uzten duena 95/46/EE Zuzentaraua) 9. artikuluan ezartzen duenaren arabera babestuta daudenak izan ezik.

c') Erabilitako sistema informatikoaren edo softwarearen identifikazioa (sistemak edo softwareak hurrengo 2. idatz zatian ezartzen dena bete behar du), eta hura garatu duen pertsonaren edo entitatearen identifikazioa.

b) Aurreko a) letran xedatzen denarekin bat etorritik sortzen den fitxategi informatiko bakoitza berehala bidali beharko da zerga administraziora, edo arautegian ezartzen den epealdiaren barruan.

c) Fakturaren edo frogagiriaren identifikazio kodea. Fakturak edo frogagiriak "QR" kodea eduki beharko du.

Halaber, idatz zati honetan arautzen den betebeharra bete beharko dute errentak esleitzeko araubidean dauden entitateek eta testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahaldua baliatzearen zain dauden jarauntsiek, jarduera ekonomikoren bat egiten badute. Nolanahi ere, etekinak kideen artean esleitu beharko dira.

Betebehar honen salbuespenak ezarri ahal izango dira arautegian.

2. Aurreko idatz zatian ezartzen dena betetzeko honako hauek erabili beharko dituzte zergadunek:

a) Arabako Foru Aldundiak zergadunen eskura ipinitako aplikazio informatikoa (baldintzak eta mugak arautegian ezarriko dira).

b) Berariaz eraturako erregistroan inskribatutako softwarea, erregistro horretan berean inskribatuta dagoen pertsona edo entitate batek garatua (garatzaileak erantzukizunpeko adierazpena sinatuta eduki behar du).

Letra honetan aipatzen den erregistroko inskripzioa, horren aldaketa eta baja arautegian ezartzen denarekin bat etorri egingo dira.

Baldin eta b) letra honetan aipatzen den softwarea zergadunak berak garatu badu, berak sinatu beharko du erantzukizunpeko adierazpena eta berak inskribatu beharko du softwarea erregistroan.

3. Arautegian arau bereziak ezarri ahal izango dira aurreko 1. idatz zatian arautzen den betebeharrari dagokionez kasu honetarako: faktura eragiketaren jasotzailea den pertsona edo entitate batek edo hirugarren batek egiten duenean.

4. Zerga administrazioak faktura edo frogagirien jasotzaileak diren pertsona eta entitateei aukera emango die fakturak edo frogagiriak jasotzen dituzten zergapekoek egiaztatzeko 1. idatz zatian arautzen diren betebeharrak betetzen direnez.

Egiaztapena egiteko modua arautegian zehaztuko da.»

Bi. 118. artikulua honela gelditzen da:

«118. artikulua. Arau haustek eta zehapenak.

Hurrengo artikuluan eta foru arau honetako gainerako manuetan xedatzen dena gorabehera, zerga honen arloko arau hausteei zehapena ezarriko zaie otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, xedatzen duenarekin bat etorri.»

Hiru. XIII. tituluaren 118 bis artikulua gehitzen da; hona testua:

«118 bis artikulua. Ondasun emateak eta zerbitzugintzak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, artapena, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen dituen sistema informatikoa erabili beharra: arau haustek eta zehapenak.

1. Zergen arloko arau haustek dira:

a) Ondasun emateak eta zerbitzugintzak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, artapena, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen dituen sistema erabili beharra ez betetzea foru arau honetako 113 bis artikuluan eta hori garatzen duten xedapenetan ezartzen denarekin bat etorri.

b) Foru arau honetako 113 bis artikuluan aipatzen diren sistema informatikoa, softwarea edo fitxategi edo erregistro informatikoak ezabatzea, eskuz edo prozesu informatiko baten bidez.

2. Aurreko 1. idatz zatiko a) letran aipatzen den arau hausteagatik honako zehapen hauek ezarriko dira:

a) Orokorrean, diruzko isuna: aurreko ekitaldiko negozio kopuruaren ehuneko 20 (20.000 euro gutxienez).

Aurreko ekitaldia egutegiko urtea baino laburragoa izan bada, negozio kopurua urtekoratu egingo da.

Jarduera ekonomikoa hasi berria bada, lehenengo ekitaldian egindako negozio kopurua hartuko da aintzat; lehen ekitaldia urtea baino laburragoa izan bada, ekitaldiko negozio kopurua urtekoratu egingo da.

Baldin eta aurreko 1. idatz zatiko a) letran aipatzen den arau haustea egin aurreko lau urteetan arau hausleari ebazpen irmoaren bidez, letra honetan xedatzen denarekin bat etorri, zehapena ezarri bazaio administrazio bidean beste arau hauste batengatik, diruzko isun proportzionala

ezarriko zaio, aurreko ekitaldiko negozio kopuruaren ehuneko 30ekoa, hain zuzen (gutxienez 30.000 euro).

b) Aurreko a) letran xedatzen dena gorabehera, sistema erabili beharra ondasun emate edo zerbitzugintza batekin edo batzuekin betetzen ez bada, isuna diruzko isun finkoa izango da: 2.000 euro sistema erabili ez den eragiketa bakoitzeko.

Aurreko paragrafoan xedatzen denaren ondoriozko zehapena inolaz ere ezin da izan aurreko a) letran xedatzen denaren aplikazioaren emaitzako kopurua baino gehiago.

Baldin eta aurreko 1. idatz zatiko a) letran aipatzen den arau haustea egin aurreko lau urteetan arau hausleari ebazpen irmoaren bidez, letra honetan xedatzen denarekin bat etorritik, zehapena ezarri bazaio administrazio bidean beste arau hauste batengatik, zehapena aurreko a) letrako lehen paragrafoan xedatzen denarekin bat etorritik ezarriko da.

3. Aurreko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen den arau hausteagatik honako zehapen hauek ezarriko dira:

a) Diruzko isuna: aurreko ekitaldiko negozio kopuruaren ehuneko 20 (40.000 euro gutxienez).

Zehapen hau eta aurreko 2. idatz zatiko a) letran arautzen den zehapena bateragarriak izango dira.

Aurreko ekitaldia egutegiko urtea baino laburragoa izan bada, negozio kopurua urtekoratu egingo da.

Jarduera ekonomikoa hasi berria bada, lehenengo ekitaldian egindako negozio kopurua hartuko da aintzat; lehen ekitaldia urtea baino laburragoa izan bada, ekitaldiko negozio kopurua urtekoratu egingo da.

Baldin eta aurreko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen den arau haustea egin aurreko lau urteetan arau hausleari ebazpen irmoaren bidez, a) letra honetan xedatzen denarekin bat etorritik, zehapena ezarri bazaio administrazio bidean beste arau hauste batengatik, diruzko isun proportzionala ezarriko zaio, aurreko ekitaldiko negozio kopuruaren ehuneko 30ekoa, hain zuzen (gutxienez 60.000 euro).

b) Baldin eta zerga administrazioak egiaztatzen badu aurreko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen den ezabaketan edo manipulazioan esku hartu duela softwarea garatu duen pertsonak edo entitateak edo foru arau honetako 113 bis artikulua arabera zergapekoa dena ez beste pertsona batek, pertsona edo entitate hori ere arau hausletzat joko da eta diruzko isun finkoa ezarriko zaio: 40.000 euro.

Baldin eta aurreko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen den arau haustea egin aurreko lau urteetan arau hausleari ebazpen irmoaren bidez, b) letra honetan xedatzen denarekin bat etorritik, zehapena ezarri bazaio administrazio bidean beste arau hauste batengatik, diruzko isun proportzionala ezarriko zaio: 60.000 euro.

c) Baldin eta zergadunak berak garatu badu softwarea eta, gainera, aurreko 1. idatz zatiko b) letrako arau haustea egiten badu, idatz zati honetako a) letran xedatzen denarekin bat etorritik ezarriko zaio zehapena.

Idatz zati honetan ezartzen denaren ondorioetarako, pertsona edo entitate batek aurreko 1. idatz zatiko b) letran aipatzen den ezabaketan edo manipulazioan esku hartu duela ulertuko da honako kasu hauetan:

– Sistema informatikoa edo softwarea aldatu badu, edo fitxategi edo erregistro informatikoak.

– Sistema informatikoa edo softwarea kontrolatu edo kontrolatzen badu, edo fitxategi edo erregistro informatikoak.

– Ezabaketa edo manipulaziorako sistema, baliabide edo metodoren bat jarri badu beste pertsona edo entitate baten eskura.

– Ezabaketarako edo manipulaziorako jarraibideak eman edo irakatsi baditu.

– Ezabaketa edo manipulaziotzat jotzeko bezain garrantzitsua ez izan arren, ezabaketa edo manipulazio prozesuko elementua den ekintza bat egiten badu edo beharrezko zerbait egiten ez badu, baldin eta horren ondorioz, beste pertsona edo entitate baten edo batzuen ekintzekin edo ez-egiteekin batera, ezabaketa edo manipulazioa gertatzen bada.

4. Artikulu honetan arautzen diren arau haustek eta zehapenak bateragarriak dira otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 206. artikuluan arautzen dituenekin.

Hala ere, aurreko 2. idatz zatian arautzen diren zehapenetako bat ezarriz gero, ezin izango da ezarri otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 206.2.b) artikuluko bigarren paragrafoan arautzen duen zehapena.

5. Aurreko 2. eta 3. idatz zatietan xedatzen denarekin bat etorritik ezartzen diren zehapenei otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 192. artikuluan arautzen duen murrizketa aplikatu ahal zaie, bidez.»

Bigarrena. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauari beste xedapen gehigarri bat eransten zaio, hogeita hamahirugarrena (2020ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak); hona testua:

“Hogeita hamahirugarrena. Ondasun emateak eta zerbitzugintzak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, artapena, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen dituen sistema erabiltzea sustatzeko kenkaria.

1. 2020ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arte jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoek, errentak esleitzeko araubideko entitateek eta testamentu ahalordea baliatzearen edo gozamen ahalordua baliatzearen zain dauden jarauntsiek abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, hogeita seigarren xedapen gehigarrian arautzen duen kenkaria aplikatu ahal izango dute, bertan ezartzen denarekin bat etorritik eta xedapen gehigarri honetan arautzen diren berezitasunekin.

2. Aurreko idatz zatian aipatzen den kenkaria zerga honen kuota osoari aplikatuko zaio, hain zuzen ere jarduera ekonomikoen etekinekin osatzen den zerga oinarri orokorraren zatiari dagokion kuota osoari.

3. Errentak esleitzeko araubideko entitateen eta testamentu ahalordea baliatzearen edo usufuktu ahalordua baliatzearen zain dauden jarauntsien kasuan, aurrean aipatutako hogeita bigarren xedapen gehigarriko 2. idatz zatian arautzen den gehieneko muga, jarduera ekonomikoren bat egiten duten errentak esleitzeko araubideko entitateetako bazkideei, jaraunslerei, erkideei edo partaideei dagokiena, entitatearen negozio zenbateko garbiaren eta pertsona horiek entitatearen emaitzetan duten partaidetzaren arabera zehaztuko da.

Aurrekoaren aplikazioan ez dute eraginik edukiko errentak esleitzeko araubidean dauden entitateetako bazkideek, jaraunslerek, erkideek edo partaideek beren bakarkako jarduera ekonomikoengatik duten gehieneko mugak.

4. Kenkari hau aplikatzea aukerakoa da; aukera baliatzeko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 115. artikuluko 3. idatz zatian xedatzen duena eta foru arau honetako 105. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.»

4. artikulua. Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorraren aldaketa

Lehenengoa. Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauko 205. artikuluko 2. idatz zatiko c) letrako azken bi paragrafoak ezabatzen dira. Ezabaketak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Bigarrena. Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 205. artikuluko 2. idatz zatiko g) letra aldatzen da eta honela gelditzen da:

“g) Erregelamendu bidez ezarritako baldintzetan, erregistroak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan hornitzen ez badira eta ondorioz erregistro liburuak kudeatzeko betebeharran atzerapena gertatzen bada, diruzko isun proportzionala ezarriko da, erregistroaren xede den eragiketaren fakturaren edo frogagiriaren (elektronikoa zein paperezkoa) zenbatekoaren ehuneko 0,5ekoa (gutxienez 300 euro hiruhilekoan eta gehienez 6.000 euro).”

Hirugarrena. Arabako zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko 206. artikuluko 2. idatz zatiko b) letra aldatzen da eta honela gelditzen da:

“b) Fakturak edo frogagiriak egin, bidali edo ematen ez badira, edo gordetzen ez badira, diruzko isun proportzionala ezarriko da, arau haustea sorrarazi duten eragiketen zenbateko osoaren ehuneko bikoia. Arau hausteari dagozkion eragiketen zenbatekoa zein den ezin jakin daitekeenean, zehapena 600 eurokoa izango da faktura edo dokumentua egin edo gorde ez den eragiketa bakoitzeko.

Zerga administrazioak egiaztatzen badu faktura egokia egin, bidali edo eman ez dela, eta inguruabar hori artean bukatu ez den zergaldi batean egiaztatzen badu, 600 euroko isuna ezarriko da faktura egin, bidali edo eman ez den eragiketa bakoitzeko.”

Lehen xedapen iragankorra. Foru arau honetan arautzen diren tresna teknologikoak erabili beharra betetzeko egutegia.

Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, foru arau honen bidez erantsitako 122 bis artikuluan ezartzen dituen betebeharrak eta azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, foru arau honen bidez erantsitako 113 bis artikuluan ezartzen dituen betebeharrak arautegi batean ezartzen den ezarpen egutegiaren arabera eskatu ahal izango dira, jarduera sektoreen arabera.

Bigarren xedapen iragankorra. Fakturazioa kontrolatzeko erabiltzen diren programa edo fitxategi informatikoak eta kodetze sistemak ezabatu, suntsitu edo manipulatzeari ezartzen diren zehapenen araubide iragankorra.

Foru arau honetako 4. artikuluan xedatzen dena gorabehera, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko, Arabako zergei buruzkoak, 205. artikuluko 2. idatz zatiko c) letrako azken bi paragrafoetan xedatzen duena (foru arau hau indarrean ipini aurretik indarrean egon den testua) aplikatuko da abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 122 bis artikuluan ezartzen duen betebeharra edo azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, 113 bis artikuluan ezartzen duen betebeharra (kasuan kasukoa zergadun bakoitzeko) eskatzen hasi aurretik gertatzen diren arau hauste guztietan.

Disposición adicional única. Dedución para el fomento del cumplimiento de la obligación TicketBAI.

1. Ondasun entregak eta zerbitzu prestazioak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta igorpena bermatzeko sistema informatiko baten ezarpena sustatzeko kenkaria aplikatzeko eskubidea duten Sozietateen gaineko Zergaren zergadunek, zeina jasota baitago Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren hogeita seigarren xedapen gehigarrian, baldin eta TicketBAI betebeharra 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen euren borondatez aurreratzen badute, kenkari hori aplikatu ahal izango dute, bertan azaldutakoaren arabera, honako espezialitateekin:

a) Aipaturiko hogeita seigarren xedapen gehigarriaren lehen paragrafoak aipatzen duen kenkariaren oinarria horretan aipatutako eta 2021eko abenduaren 31aren aurretik egindako gastu eta inbertsioen zenbatekoaz osatuta egongo da.

b) Aipaturiko hogeita seigarren xedapen gehigarriaren lehen apartatuak aipaturiko kenkari-portzentajea ehuneko 60 izango da.

c) Aipaturiko hogeita seigarren xedapen gehigarriaren 2.b) apartatuaren b') letrak aipatzen duen diru-kopurua 1.500 euro da.

2. Kenkari hori aplikatzeko, zergadunek derrigor hasi beharko dute TicketBAI betebeharra betetzen 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, edozein dela ere araudi bidez ezarriko den TicketBAI betebeharraren ezarpen-egutegiaren arabera dagokien data.

3. Xedapen gehigarri honetan jasotako kenkaria aplikatzen duten zergadunek ezin izango dute aplikatu, gastu eta inbertsio horiei dagokienez, aipaturiko hogeita seigarren xedapen gehigarrian jasotako kenkaria.

4. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriaren igorpena dela-eta, aurreko 1. Apartatuan aipaturiko hogeita seigarren xedapen gehigarrian ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea duten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek kenkari hori aplikatu ahal izango dute aurreko apartatuetan ezarritako espezialitate eta betekizunekin.

Ondorio horietarako, aurreko 3. apartatuan egindako hogeita seigarren xedapen gehigarriaren igorpena aurreko paragrafoan aipaturiko hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriari egiten zaiola ulertuko da.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Ondorioak, hala ere, artikuluetan adierazten den bezala sortuko ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 12a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA